

## Agur bihoztia Jose Antonio Arana Martijari



Jose Antonio Arana Martija apirilaren 26an hil zen Gernikan, 80 urte zituela. Eusko Ikaskuntzako bazkide 1978an berrezarri ondorengo lehen momentutik (266. zenbakia zuen), José Antonio Arana Martija Musika Saileko lehendakari izan zen 1987 eta 1990 urteen artean.

Jose Antonio Arana Martijaren lana zabala da eta, zentzu askotan, oraindik gaudituz gabea. Hori da 1976an argitaratu eta ondoren berrargitaratu den *Música Vasca* liburuaren kasua, tokiko musikaren historiaren inguruan egindako lehen bilduma lan global, zabal eta dokumentatua izan zen eta orain arteko bakarra da. Aipatzekoak dira baita Santa Cecilia eta Gernikako Andra Mari abesbatzen sorrera eta zuzendaritzan egindako lanak. Gainera, nabarmentzekoak dira euskal musika sistema hobetzeko egindako txostenak.

Euskaltzaindiko liburuzain 1978tik eta euskaltzain oso 1988tik, Jose Antonio Arana Martijak lan handia egin du dokumentalista eta bibliografo gisa, katalogo, kantutegi eta bestelako bilduma garrantzitsuak sortuz.

2008ko ekainean, Bilbon, erakundeak merezitako omenaldi publikoa egin zion, eta bere ibilbide eta lanari eskainitako *Musiker. Cuadernos de Música* alea argitaratu zuen.

Pasa den abenduan, Eusko Ikaskuntzako Batzar Iraunkorrak Manuel Lekuona Saria 2010 eman zion Jose Antonio Arana Martijari XX. mendeko bigarren erdialdeko euskal musikaren ikerketa eta zabalkundearen irudi aktiboenetako bat izan delako. Hori dela eta, Pruden Gartzia eta Josune Olaberriak idatzitako bio-bibliografia kaleratu da, lan honen aurkezpena Manuel Lekuona Saria 2010 emateko ekitaldiarekin zen egitekoa udaberria. Eusko Ikaskuntzak estimu eta miresmenez agurtu du konprometitutako bazkide, animatzaile eta kolaboratzaile nekaezina, euskal kulturaren aldeko zehaztasun, lan eta konpromisoaren adibide.

Eusko Ikaskuntzak, eta guztiz bereziki bere Musika Saileko kideek, estimu eta miresmenez agurtu dute konprometitutako bazkide, animatzaile eta kolaboratzaile nekaezina, euskal kulturaren aldeko zehaztasun, lan eta konpromisoaren adibide.

## Hacia un modelo sostenible de país

BAI+5 programak lagundu egin dio Ecoeuskadi 2020ri 'Sistemaren Egiturazko Análisis' izenburuko dokumentuaren bidez, zeinak, arriskurik hartu gabe, garapen iraunkor baten eredurantz joateko estrategia finkatzen duen



A finales de abril, el programa BAI+5, integrado por Eusko Ikaskuntza, Innobasque, ACLIMA y el Cluster de Movilidad y Logística de Euskadi, presentó su *Análisis Estructural del Sistema "Comunidad Autónoma del País Vasco y su futuro"*, elaborado entre los meses de febrero y abril con participación de diversos agentes sociales.

Dicho análisis pretende servir como herramienta de provecho para la iniciativa Ecoeuskadi 2020, que lidera el Gobierno Vasco. El objetivo de la misma es diseñar una estrategia que permita avanzar hacia un proyecto de país económicamente competitivo, innovador y eficiente, socialmente cohesionado y corresponsable, así como ambientalmente

comprometido con la calidad de los bienes y recursos que forman parte de su patrimonio cultural.

Para hacer posible una transición controlada hacia dicho modelo económico, social y medioambiental sostenible, dotado de un sistema energético no despilfarrador, el *Análisis Estructural del Sistema "CAPV y su futuro"* identifica 24 palancas reguladoras sobre las que se debería sentar el correspondiente Plan de Acciones.

De esta manera, el análisis prospectivo-estratégico desarrollado por BAI+5 ofrece recursos prácticos para manejar el complejo y delicado Sistema que fundamentaría el progreso hacia un futuro sostenible de la CAPV, de modo que puedan elaborarse Acciones Estratégicas

reduciendo al máximo los riesgos inherentes a toda toma de decisiones que suponga una transformación de paradigmas.

Así, el *Análisis Estructural del Sistema "CAPV y su futuro"* se ofrece como una sólida pauta para el conjunto de ciudadanos, para empresas e instituciones públicas que podrán integrarlo en el resto de sus planes y estrategias de desarrollo. Siempre, con el objetivo compartido y decidido de sentar las bases para que en el futuro el territorio que comprende la Comunidad Autónoma del País Vasco recupere unos altos niveles de prosperidad y de progreso.

Ver documento en:

[http://bai.eusko-ikaskuntza.org/BAI5/Informe\\_AE\\_CAPV2020.pdf](http://bai.eusko-ikaskuntza.org/BAI5/Informe_AE_CAPV2020.pdf)

## Erakunde Bizitza



(1)



(2)



(3)

### Biltzar des Écrivains

Il y a 27 ans, en 1984, l'idée a surgi de réunir una fois par an à Sara les écrivains qui vivent à ou écrivent sur Euskal Herria (2). Depuis lors, tous les Lundis de Pâques la localité labourdine accueille l'Idazleen Biltzarra ou Biltzar des Écrivains, rendez-vous auquel n'a jamais failli Eusko Ikaskuntza d'Iparalde qui, dans ce cadre, procède à la remise de ses bourses annuelles aux jeunes chercheurs. La Fondation José Miguel de Barandiarán présente le livre *Sara: Ikerlan etnografikoa*.

### Asamblea General

La Asamblea General anual de Eusko Ikaskuntza (3) tendrá lugar el viernes 27 de mayo, a las 18 horas, en el Palacio Miramar de Donostia. El orden del día será el siguiente:

1. Aprobación definitiva, en su caso, del Acta de la sesión ordinaria de 28.05.2010
2. Presentación y aprobación, en su caso, de la Memoria de actividades 2010
3. Presentación y aprobación, en su caso, del Balance y Cuenta de Resultados 2010
4. Distribución de Resultados. Propuesta y aprobación, en su caso
5. Proyección presupuestaria del año 2011
6. Informe del Presidente
7. Ruegos y preguntas

### UNAVen

Apirilaren 7an, Nafarroako Unibertsitateko ikasleen artean aurkeztu zen Eusko Ikaskuntza (1), erakunde horretako Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren gonbidapenez, urtero egin ohi duen bezala. Hitzaldi labur batean, Unai Apaolaza, Zuzendari Kudeatzaileak Elkartearen historia eta izera aurkeztu zituen, baita eskaintzen dituen baliabideetako batzuk zehaztu ere. Amaia Nausiak, bere aldetik, Gazteria Saila gauzatzen ari den egiteko aurkeztu zuen, bereziki "Datorrigunea" programa xeheki azaldu zuelarik.

## Programa Enblematikoak

### Auñamendi Eusko Entziklopedia

A pesar de las dificultades por las que está atravesando el sistema financiero, la Federación de Cajas de Ahorro Vasco-Navarras ha renovado un ejercicio más su apoyo a Auñamendi Eusko Entziklopedia. Para ello, su equipo

gestor presentó hace algunas semanas la nueva orientación y estructura de funcionamiento, así como el plan de trabajo para los próximos ejercicios. Valorando la importancia que tiene el proyecto enciclopédico online, las Cajas de Ahorro han comprometido su respaldo económico para el presente año.

## Asmoz Fundazioa

### Historias de vida: su aplicación en las ciencias sociales

**Objetivo:** Se ofrecerá una aproximación práctica sobre recogida de informaciones biográficas para la elaboración de un texto etnográfico

**Modalidad:** Curso online

**Organiza:** UNED-Bergara

**Duración:** 30 horas

**Inicio:** Mayo

**Más información:** <http://etnografia.asmoz.org/>

### Congreso de Ingeniería Termodinámica

Del 15 al 17 de junio Bilbao acogerá el VII Congreso Nacional de Ingeniería Termodinámica: *Energía sostenible frente al cambio climático* en cuya organización participa la Fundación Asmoz junto a la UPV/EHU (Departamento de

Máquinas y Motores Térmicos). Las líneas de trabajo versarán sobre los siguientes temas: investigación en termodinámica y termotecnia, investigación en motores térmicos, eficiencia energética, energías renovables y docencia-TICS. El 16 de mayo se abre el plazo de inscripciones estándar, que se prolongará hasta el 15 de junio.

**Más información:** <http://cnit7.asmoz.org/>

### Zuhaitz motzei buruzko tailerra

Otsailtik 'Zuhaitz Motzak: Tradizioa, Kudeaketa eta Kontserbazioa' on line ikastaroa ematen ari da, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Landa Garapenerako Departamentuak eta Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatutik, Asmoz Fundazioarekin eta Oiarzungo Udalalarekin lankidetzan. Apirilaren 8tik ioera zuhaitzak motzeiri buruzko tailer praktikoa egin zen Aiako Harria Parke Naturalean, Oiarzgunen. Balio hezigarri handiko esperientzia gertatu zen.

## Gazteria



### Datorrigunea 2011-2012

Dagoeneko irekia dago Datorrigunea 2011-2012 ikasturtean parte hartu nahi dutentzat izen emateko epea. Zapzi lurraldeetako eta diziplina anitzetako 40 gazte biltzen dituen bilgunea "Gazteak eta Baloreak" eta Generoaren arazoak" izango ditu aztergai. Gai bakoitza bost hilabetez landuko da eta parte hartu nahi dutenek 18 eta 30 urte bitarteko adina eta euskaldunak izan behar dute. Gazteria Departamentuak lideratuko dituen bileren bidez bi erronka handi hauen atzean den egoeraren diagnosis egingo dute eta ondoren, arazoari aurre egiteko proposamenak planteatuko dituzte, beti gazteen ikuspegia jasoz. Izena eman nahi dutenek ondorengo helbidean egin dezakete:

<http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/datorrigunea>

## Bekak

### Nueva beca Apraiz-Zumalabe

**B** En 1983 se crearon las becas Ángel de Apraiz y Agustín Zumalabe con objeto de fomentar la investigación en el campo de las

Ciencias Sociales y las Humanidades. Tras 28 ediciones, ambas becas se han fusionado en una nueva que mantiene la vocación original y el nombre Apraiz-Zumalabe en homenaje a quienes fueron Secretarios de Eusko Ikaskuntza.

De carácter bienal, está dirigida a equipos formados por 3 o 4 investigadores/as de menos de 36 años con titulación universitaria superior obtenida en los últimos ocho años. La beca respaldará aquel proyecto de investigación que mejor permita ampliar el conocimiento sobre un objeto de estudio definido por Eusko Ikaskuntza en atención a las necesidades detectadas por sus órganos consultores. Para esta primera edición el tema propuesto es: "Transmisión del conocimiento en la escuela: Retos didácticos ante el plurilingüismo".

El trabajo de investigación tendrá una duración de dos años, y la dotación económica anual será de 16.000 euros, a repartir equitativamente entre sus componentes.

El plazo de admisión de propuestas finaliza el 31 de mayo.

## Barandiaran Fundazioa



### Sara: Ikerlan etnografikoa

Apirilaren 15ean, Jose Migel Barandiaranen *Sara: Ikerlan etnografikoa* aurkeztu zen, bere izeneko Fundazioak argitaraturik Sarako Udalaren ekimenez Euskal Kultur Erakundearekin lankidetzan. Barandiaran, Saran 1940an kokaturik, Lapurdiko herri horren historia eta tradizioak finkatzen saiatu zen, era horretara berebiziko informazio emari bat ahanzturatik berreskuratzen zuela, bizimodu tradizionalan aldaketa sakonak abiatzen hasiak zirenen garai batean. Argazkian, Josemari Velez de Mendizabal, Barandiaran Fundazioako lehendakariak aurkezpenaren une batean.



## Euskomedia fundazioa

### Eskola 2.orako ikasmaterialak

Eusko Jaurlaritzaren EIMA 2.0 programaren barruan, Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia fundazioak DBHko ikasleei zuzendutako hainbat ikasmaterial prestatu ditu. Bost proiektuetatik hiru (*Historiaurrea Euskal Herrian*, *Erromanizazioa Euskal Herrian* eta *Erdi Aroa Euskal Herrian*) historia arlokoak dira; batek (*Gure geografia fisikoa*) EAEko geografia-elementuak aztertzen ditu, eta, azkenak, (*KLK 2.0*) Web 2.0 baliabideak ezagutzeko aukera emango du. EIMA 2.0 programaren helburua on-line erabiltzeko euskarazko ikasmaterialak garatzen

laguntzea da. Hori dela eta, Hezkuntza Sailaren onepena jaso bezain pronto, ikasmaterial hauek Eskola 2.0 plataformara gehituko dira Creative Commons lizentzia batekin, ikasle eta irakasle guztien esku egongo direlarik.



## Jardunaldiak

### Conferencias en Gasteiz

Con la charla de Francisco Javier Iza-Goñola sobre 'Las crisis económicas a lo largo de la Historia', celebrada el 12 de abril, finalizó el ciclo de ocho conferencias que ha organizado la Vicepresidencia de Alava desde el mes de diciembre sobre temas relacionados con el pasado, el presente y el futuro de las realidades sociales y culturales más cercanas. La media de asistencia de público ha rondado las cuarenta personas.

### Baiona: conférences

Le 23 avril, à Baiona, Francis Brumont, Professeur d'Histoire à l'Université Toulouse II - Le Mirail, émérite, prononça la conférence: *Un des princes du pastel, le bayonnais Jean de Cheverry (vers 1495-1555)*. Le 28 mai, Piarres Ainciart parlera du jansénisme à Baiona au XVII<sup>ème</sup> siècle.

### Hizkuntza ekologia aztertu dute

20 urteko ibilbidea eta hizkuntza ekologia lotu dituen topaketa antolatatu du UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Apirilaren 14ean, goizez, Azpeitiko Sanagustin aretoan bildu ziren adituak 20 urteotako ibilbidearen berri eman eta etorkizunerako UEMAREN ildoak lantzeko. Bide horretan, lurralde euskaldunetan hizkuntza ekologiarean teoriaren planteamenduen eta ikasbideen aplikazioa aztertu zen. Eusko Ikaskuntzatik, Zuzenbide saileko Xabier Ezeizabarrenak (1) *Hizkuntza ekologia eta udalerrri euskaldunak: oinarri juridikoak* izeneko hitzaldia eskaini zuen. Topaketa hau egiteko, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea, Soziolinguistika Klusterra eta Donostia-Gipuzkoako Kutxak lagundu dute.

### Plentzia: historia, 1868-1936

Las IV Jornadas sobre Historia Local de Plentzia han sido programadas para los días 6, 7 y 8 de julio. Se presentarán dos ponencias y cuatro comunicaciones libres. Como ponentes actuarán Enriqueta Sesmero (UNED-Bizkaia), quien tratará sobre *Uribe-Kosta y la Tercera Guerra Carlista: quiénes, cómo y por qué*; y José María Beascochea (UPV/EHU) que expondrá *El nuevo modelo urbano de Plentzia: el Ensanche de Areata y el Relleno (1900-1930)*. Las comunicaciones versarán sobre aspectos históricos, socio-económicos, políticos y etnográficos de Plentzia y su comarca en el período comprendido entre la Revolución de 1868 y el estallido de la Guerra Civil en 1936.

### Journées sur la Psychiatrie

Les 10 et 11 juin seront célébrées à Bilbao et Baiona les Journées Hommage à Julian de Ajuriaguerra (2) à l'occasion du centenaire de sa naissance 1911-2011. Ces Journées aborderont "l'actualité de sa pensée: une vision globale du patient". Lors de la journée inaugurale, à Bilbao, les spécialistes José Guimón, José Miguel Aguirre, Marc Rodriguez, Ana Gonzalez Pinto, Maite Pineiro et Bienvenido Presilla présenteront leurs exposés. De plus, il y aura une table ronde sur l'organisation de la psychiatrie communautaire dans la société actuelle. Le 11 juin, à Baiona, il y aura cinq communications à la charge de Richard Bourque et Sybille Gonzalez, Fabien Joly, Drina Candilis-Huisman, Jean-Louis Petrisans, Jean-Michel Larraquenet et Bernard Claverie. La table ronde traitera de l'intégration et la scolarisation des enfants ayant des problèmes d'apprentissage. Une entrevue avec Julián de Ajuriaguerra, réalisée par la télévision suisse sera projetée lors des deux sessions.

### Memoria historikoa eta Literatura

Eusko Ikaskuntzak eta Etxepare Euskal Institutuak antolatuturik, uztailaren 13an Donostian (Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea) *Gerra Zibila eta memoria historikoa Iberiar Penintsulako literaturan gaiari buruzko Nazioarteko Mintegia*. Mintegi honek penintsularen esparruko letretan islatuturik ageri den Espainiako Gerra Zibilaren memoria historikoaren analisi konparatu baterako oinarri teoriko eta metodologikoak jartzea du helburu.

Espainiar Estatuko lau hizkuntzetako literaturetan Gerra Zibilak izan duen irudikapenaren azterlari hauek bilduko ditu Mintegi honek: Joan Ramon Resina (Stanford University, Kalifornia), Ulrich Winter (Universität Marburg, Alemania), Mari Jose Olaziregi (EHU), Lourdes Otaegi (EHU, EI), Dolores Vilavedra (Universidade de Santiago de Compostela), Xavier Pla (Universitat de Girona) eta Joan Oleza (Universitat de València).

### Augustin Chaho: bigarren mendeurrena

Datorren urrian Augustin Chahoren jaiotzaren 200 urte betetzen dira. Horren kariaz, larunbatean, urriak 8, solasaldi bat izango da Baionan. Bertan haren bizitzaren alderdi desberdinei helduko zaie: karlismoaren aldeko suharra, euskararen defendatzailea, abertzale ameslaria, baita antikerrikala, framazona, ideia aurreratuako errepublikazalea, polemista, idazle emankorra, luma zorrotz bezain bikainaren jabea ere... Komunikazioak euskaraz edo frantsesez idatziak izango dira. Proposamenak hartzeko epea ekainaren 30ean amaituko da.



## Udalak

### Exposiciones y documentales

Eusko Ikaskuntza, en colaboración con el Instituto de Historia Contemporánea Gerónimo de Ustaritz, ha preparado un catálogo de propuestas en relación con la memoria histórica para ofrecer a los ayuntamientos vascos. El objetivo es profundizar y difundir socialmente el conocimiento sobre algunos hechos y acontecimientos de la Guerra Civil y la posguerra en suelo vasco. El catálogo reúne tres exposiciones y dos documentales. Las exposiciones son:

- *Esclavitud bajo el franquismo: carreteras y fortificaciones en el Pirineo occidental*
- *El Valle de Baztan durante el franquismo*. Imágenes y testimonios escritos del período 1936-1975
- *Campo de concentración de Gurs*. Exposición fotográfica

### Documentales:

- *Nos quitaron todo. Una de campesinas y ladrones* (P. Egilaz, 86')
- *Prohibido recordar* (T. Larreategi, J. Martínez, 53'). Sobre la prisión de mujeres de Saturraru (Mutriku)

### Erandio: beca

En el marco del convenio con el Ayuntamiento de Erandio, se convoca una beca de investigación sobre el Puerto Viejo de Asua, documentado desde el siglo XIV. Durante un año se deberá preparar un estudio de carácter histórico y antropológico. El plazo de admisión de propuestas finaliza el 20 de junio.

### Más información:

<http://www.eusko-ikaskuntza.org>

### Busturia y Segura: fotografías

En los primeros meses del presente año, se ha continuado con la catalogación, clasificación y digitalización de imágenes para engrosar los Archivos Fotográficos Municipales de las localidades de Busturia y Segura (3). En el caso de la villa vizcaína se han catalogado 600 imágenes y se han digitalizado 1.500 más. Se trata de fotos de gran valor e interés histórico, cedidas por una familia vinculada con Busturia. De su parte, Segura ha sumado 200 nuevas imágenes a su fondo. Todas ellas han sido procesadas por los servicios técnicos de Euskomedia Fundazioa.

### Aretxabaleta: ikerketa

2006an, Eusko Ikaskuntzak eta Aretxabaletako Udalak beka bat eman zuten II. Errepublikari, Gerra Zibil eta lehen frankismoaren garaia buruzko azterlan historiko bat gauzatzeko. Ondoriozko obra jadanik entregatu da eta aurki argitaratzeko da. Jose Ramon Intxauspe Lopezen koordinaziopean, Arantza Bezeibar Galdos, Aitor Antxia Leturia eta Kepa Antxia Leturia izan dira horren egileak.

*Gerra Zibila Aretxabaletan. Ezin ahaztu!* Lanak 1930-1940 bitartean gertaturiko aldeketa politiko eta sozialak ezagutzera eman nahi du, 1936-1939ko Gerra Zibileko gertaerak eta herritarren artean izan zituzten ondorioak zehaztu eta biktima guztien zerrenda emanez. 400 orritik gorako testua irudiz hornituriko sei ataletan banaturik dago, ehun irudi eta dokumentu inguru dauzkalarik.

## Jakiunde

### Séance plénière

Jakiunde a célébré le 15 avril sa première Séance plénière ordinaire de l'année au Palais d'Antoine d'Abbadie de Hendaia (4), à l'occasion du 160<sup>ème</sup> anniversaire des premiers Jeux Floraux. Lors de la réunion il fut procédé à l'investiture de la soprano Maria Bayo, et des questions telles que le développement du programme Topaketak et du programme pilote "Jakin-mina" furent abordées. L'après-midi a eu lieu un hommage à Antoine d'Abbadie avec l'intervention de: Pedro Miguel Etxenike, Président de Jakiunde, Jean-Baptiste Sallaberry, Maire d'Hendaia, François Beauducel de l'Académie des Sciences de France et Patri Urkizu.

### Topaketak

Joan den urrian Jakiunde "Topaketak" izeneko ekimen berri bat abiarazi zuen Zientziak, Arteak eta Letrak ikasleen artean sustatu eta zabaltzeko "jakitunak" diren bezalako entzute handiko pertsonen bidez, hala Zientzien eremuan nola Humanitate eta Arteen eremuan. Programa honen barnean, martxoaren 29an Javier Retegei, Sixto Jimenez eta Jose A. Garridok Mondragon Unibertsitateko Enpresa Ikasketen Fakultateko ikasleen aurrean hitzaldia eman eta haiek hitz egin zuten. Eta apirilaren 5ean, Mari Carmen Gallastegui eta Jose Maria Asuak gauza bera egin dute Iruñean, Nafarroako Unibertsitatean.



## Argitalpenak

Karmeldarrak  
Markina-Xemeinen

*Karmeldarren eragin kultural eta soziala Markina-Xemeinen. 1960-1980 hamarkadetan herriko kultur bizitzari emandako bultzada eta babes da* Xabier Larrañaga Gisasolak idatzitako liburuaren izenburua, berriki argitaratu dena Lankidetzan bildumaren 54. ale gisa. Lan honetan Markina-Xemeingo karmeldarrek herriko bizitza kultural eta sozialean izandako eragina aztertzen da, batez ere frankismoaren azken urteetatik trantsizioa garatu zen arte (1960-1985). Eragin hori hiru esparrutan oinarritu zen besteak beste: Zerutu ikastola eta kultur elkartearen sorrera eta bultzada, bertsolarien biltzarra antolatzean eta Sugar izeneko gazte elkartearen sorreran.



## Eleria, 20

Lau artikulu nagusitan hainbat gai tratatzen dira: genero indarkeria eta babes aginduak, atzerritarren arteko familia berrelkartzea, nazioarteko legediaren eragina Espainiako zigor arloko bigarren instantziaren arauketan eta euskal sistema judiziala. Gainera, *Epaiaik eta epaitegiak*, *Euskara juridikoa eta Kronikak eta Iruzkina*k ataletan hainbat lan interesgarri argitaratzen dira. Era berean, Joxe Ramon Bengoetxea irakasleari egindako elkarrizketa eta Günther Jakobs-en "Kriminalizazioa ondasun juridikoaren kaltearen aurretiko estadiotan" obra klasikoaren analisi bat jaso dira ale honetan.

## Irratsaioak



## Radio Vitoria, 1996-2011



El 8 de mayo de 1996 se emitió el primer programa de Eusko Ikaskuntza a través de Radio Vitoria, emisora decana del territorio alavés. En estos quince años han sido del orden de 600 los espacios radiados en los que han

participado más de 1.500 personas, en buena parte miembros de Eusko Ikaskuntza. El programa ha permanecido ininterrumpidamente en antena con fidelidad a su formato de tertulias sobre cuestiones de actualidad o de interés social, contando con la opinión de especialistas contrastados. El espacio ha recibido galardones como el Premio Iparragirre de EITB, pero, sin duda, el mejor premio son los oyentes que cada domingo de 10 a 11 de la noche deciden escucharlo.

## Agenda

## Maiatza / Mayo / Mai

- 3-4: Bilbao.  
XV Symposium de Historia de Bilbao:  
*Espacio, expansión y fronteras*
- 5: Gasteiz.  
*Gaurko Euskal Narratiba*: Ur Apalategi
- 5: Hernani:  
*Fuentes medievales del Archivo Municipal de Hernani (1379-1527)* liburuauren aurkezpena
- 19: Donostia. Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*
- 27: Donostia.  
*Bazkide Batzar Nagusia / Asamblea General de Socios*
- 28: Eibar. *Dantza soltea* Jardunaldiak
- 28: Baiona. Piarres Ainciarten Hitzaldia:  
*Jansenismoa Baionan XVII. mendean*



## Ekaina / Junio / Juin

- 4: Eibar.  
*Dantza soltea* Jardunaldiak
- 7: Donostia. El-CL Sariaren epaimahaiaren bilera
- 10-11: Bilbao, Baiona.  
*Homenaje a Julián de Ajuriaguerra en el centenario de su nacimiento*
- 14: Gasteiz:  
Gizarte Ospe Batzordea
- 16: Gasteiz.  
Batzorde Eragilea, Batzorde Iraunkorra / *Comité Ejecutivo, Junta Permanente*



## Uztaila / Julio / Juillet

- 6-8: Plentzia.  
*Plentziako Tokiko Historia IV. Jardunaldiak: 1868-1936*
- 13: Donostia.  
*Gerra Zibila eta memoria historikoa Iberiar Penintsulako literaturan nazioarteko mintegia*
- 14: Donostia.  
Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*
- 23: Baiona. Conférence de Eric Dicharry:  
*L'anthropologie de la fête au Pays Basque*



## Iraila / Septiembre / Septembre

- 15: Donostia.  
Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*



## Argitaratzailea

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,  
Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA

## Secretaría de Publicaciones

Eva Nieto

## Harpidetzak

Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

## Eusko Ikaskuntzako

**Bulego Nagusiak**  
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48  
20007 DONOSTIA  
Tel. 943-310855  
Fax 943-213956  
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

## Arabako Bulegoa

General Alava, 5-1º  
01005 GASTEIZ  
Tel. 945-231552  
Fax 945-148752  
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org

## Bizkaiko Bulegoa

Pº de Uribartite, 10, planta baja  
48009 BILBAO  
Tel. 94-4425287  
Fax 94-4414650  
bilbo@eusko-ikaskuntza.org

## Nafarroako Bulegoa

Pl. del Castillo, 43 bis, 3 D  
31001 IRUÑEA  
Tel. 948-222105  
Fax 948-211737  
iruna@eusko-ikaskuntza.org

## Ordutegia

Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00 eta  
15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00.

## Horario

De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de  
15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00.

## Ipparaldeko Bulegoa

51 quai Jauréguiberry  
64100 BAIONA  
Tel. 559598290  
Fax 559461844  
baiona@eusko-ikaskuntza.org

## Ordutegia

Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta  
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

## Horario

Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et  
15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

## Argazkiak:

Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa,  
Euskomedia Fundazioa, Koro Muro eta  
Ajuriaguerra familia

L.G.: 55-1056/92. ISSN 1133-9861

Fotokonposaketa: Ipar S.L. (Donostia)  
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga

[www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda](http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda)